



BARREN
TOKIKOM

Kantuak batu ditu



Haizea dator Iparraldetik!



Mixel Etxekopar

Kontzertua

**Urriak 2, ostirala. 23:00etan
Kultur Etxeko sotoan
Prezioa: 3€**

sinuöse



ELGOIBARKO IZARRA



ELGOIBARKO UDALA

EUSKARA

elgoibar



ELGOIBARKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



**STOCK
FERIA
2015**

Urriak 3, larunbata

10:00etatik – 14:30era

**Lekueder parkea
Elgoibar**

14:00etan

Zozketa 600€

Antolatzailea



Laguntzailea



Babeslea





IBON SERRANO LASA



“Ez al gara aholkulari orojakitun bilakatzen Iparraldea anaia txiki bailitzan tutelatu nahian?”

Kaixo, Arkaitz. Noan harira: Zorionak Elgoibarko Izarrari Iparraldeari buruz antolatu duen egitarauagatik. Ez naiz aditua, baina susmoa dut hegoalde-tarron* artean hainbat aurreiritzi hedatuak ditugula. Bada, “erromantizismo” kutsuz, paisaiaren ederra, abesti zein euskalkien zirrara eta har-kadia galdua irudikatzen dugun arren; lehenengo *rotonde*, *carrefour* eta *coiffure*-ak ikusi bezain laster, itzalak agertzen zaizkigu: euskararen egoera, ustezko joera, folklorismoa, ekonomia, erakunde beharra eta argudio soka luze bat.

Baina, gure “lorpenen” talaiatik, ez al gara “aholkulari orojakitun” bilakatzen Iparraldea anaia-txiki-gajoa bailitzan tutelatu nahian?...eta, zorroztasun bera aplikatuko bagenio gure txoko “celtiberiarari”**?

- *Ongi-etorri euskañolez ere mintzo den ingurumen degradatu eta asfaltoaren erresumara.*

- *Honatx gure kultur ikurrak: pintxo, tapa eta banderilla!*

- *Hiru talde Lehenengo Mailan! Eta hainbat superportu, aireportu, erakunde zein bazkude!*

- *Eta gutxi balitz, zortzi Oscarterol film saridun!*

Nietzchek*** zioen: “*Badirudi gizartea proiektu eta lidergo gabeko sasipositibismo hutsalean kolektiboki horditua legokeela.*”

Noski, arrazoi desberdinek azal dezakete egoera; baina baita Bidasoaz bestalde ere agian, adibidez:

Pays Basque: Frantziar estatuaren itzalean, iraultzaren eragina eta 14ko gerraren ondorio konsolidatzailea jasan duen lurraldea. %0,46 hedadura, %0,42 biztanlerian; hutsaren hurrengoa, presio politikan. Gainera, estrategiadun hirigunez jantzia: Baiona gotorleku militarra, Miarritze harribitxi turistikoa; gehi diezaigun baita kostalde kolonizatua eta barnealde hustua...eta hala ere.... Eta hala ere diot... identitate indartsu bat, konplexu gabeko harrotasun bat, erreferentea kulturgintzan, musikagintzan, lurrarekiko maitasunean, bizirauteko gogoan eta energian, batasuna gutxienez; hori ere bada Iparraldea. Agian badaukagu zer ikasi ezta, Arkaitz?

* Zentzu zabalean esana; % handia lasai bizi baita, ardurak hauek gabe: *-El parral de?*

**To ziri berritua!

***Ez dut uste hori zioenik, baina bikain geratu zait.



ARKAITZ IRURETA ARRIETA



“Geure kontsideratzen dogun hori Frantziako altxorra ere badala ikusteko ez da asko bihar”

Ezagun batek dio Iparraldia ez dala Lapurdi, Zuberua eta Baxe Nafarra bakarrik, ipar isurialde osua baizik. Hau da, Gipuzkoa, Bizkaia, Arabako Nerbioi ingurua eta Nafarroaren Bidasoa aldia ere sartzen ditu iparraldian. Zentzu horretan, esan leike *Saltus Vasconum* eta *Ager Vasconum* izen erromatarrek hobeto definitzen zabela haren teorixia.

Teorixak, historia, kultura eta folkloria ondo dagoz, baiña egunerokotasunian zentratzia gehixago gustatzen jata neri. Zeuk aitutatuko iparraldiari, gurian “beste aldia” esaten ziuene, eta zeuk esandakua datu batzuk in jantzia pentsatu dot. Geure kontsideratzen dogun hori, Frantziako altxor bitxia ere badala konturatzeko ez da asko bihar. Badakizu Euskal Herriko metro koadro garestixena nun dagon? Ez, ez da estatu espaiñiarreko garestixena dan Donostia; etxe baten metro koadrua Donostian baiño garestixagua ei da Miarritzen!

Jakiña, horrek esan nahi dau Paris inguruko erosteko ahalmen handiko kolonuek hautu hori egin dabiela, eta langille akonplejuok aberasgai ei geranez, askorentzat frantses izatia *cool* ago izango dala euskaldun izatia baiño.

Eta hala ere, mugimendu interesgarriak ikusten ditut nik ere. Euskoa (Txanpon solidario, ekologikoa, 0 kmko...), Lurzaindia (*Crowdfunding* edo akzionista ezberdinek eratutako funtsa lurrak erosteko, merkatu espekulatibotik ateratzeko. Dela eraikuntza, AHT eta abarretatik atera eta ondasun natural kolektibo eta aprobetxagarri bilakatzeko nekazaritzarako), AHT bere lurretatik ez iragarteko hautetsien kontseillua, eta hegoaldeko nekazarixek inbidiaz begiratzen deben EHko Laborantza Ganbera (“Berhoko” moduko bultzatzaile batekin), besteak beste.

Frantsesek urtiak daramatzate aurretik, eta aukeran, hobe haiengandik kutsatuak izatea, ez?

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Teknologia... berriak?

Badira urte batzuk kontsumoko informatika eta elektronikari teknologia berriak deitzen diegula (zientzia eta industriaren beste alor guztietan ez omen da urteotan aurrerapenik izan). Gaur egun Internet deitzen dugunaren hastapenak 1960-70 urte ingurukoak dira, www-a 1990koa... berri berriak ere ez dira teknologiok, beraz. Dena den, eztabaida hori alde batera utzita, horren berria ez den tresna bati buruz hitz egiten hasi nahi nuke atal hau: RSS deiturikoa.

Duela urte batzuk arte, egunkari eta aldizkariak irakurtzen genituen moduan,

gaur egun webguneak, blogak etab. jarraitzen ditugu gehienok. Lehen egunkari bat eta aldizkari pare batekin gehienontzat nahikoa bazen ere, gaur egun eskura dauzgun milioika aukerekin, konplikatua izan daiteke denak kudeatzea. Honetarako aukera bat Twitter eta Facebook moduko sare sozialak erabiltzean datza, leku bakarrean berri guztiak jasotzeko, baina webgune eta blog askok ez dute beraien edukia sare sozialotan argitaratzen.

*“RSS irakurle bat erabiliz,
minutu bakarrean
ikus dezaket
zein berri dagoen”*

Nik neuk, orain bertan, 90 bat webgune jarraitzen ditut, baina ez dut egun

osoa banaka-banaka denetara konektatzen ematen. RSS irakurle bat erabiliz, minutu bakarrean ikus dezaket zein berri dagoen, titullarrak gainbegiratu eta, bat edo beste interesatzen bazait, ireki eta lasai irakurri.

Besterik badago ere, RSS irakurle ezagunenetako bat Feedly da. Erabili nahi baduzue, sortu kontu bat (doan) eta hasi, bilaketa koadroa erabiliz, jarraitu nahi dituzuen webguneak gehitzen. Askotxo pilatzen bazaizkizue atal edo karpetetan sailkatzeko aukera ere badaukazue.

Egin ahala, webguneotako berriak ikusiko dituzue. ‘Irakurri gisa’ markatzen badituzue, Feedly hurrengo irekitzean, notizia berriak bakarrik agertuko zaizkizue. Gainera, etxeko ordenagailutik, lanekoetik, mobiletik ala beste edonondik konektatzeaz aplikazio honetara.

Nire asmoa ez da tutorial bat idaztea. Beraz, saiatu, probatu, erabili... ikasteko modu onena baita. Eta noski, edozein duda badaukazue, galdetu Google-i :-).



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biziz-errotik

Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► AEK EUSKALTEGIAK, ESKER ONEZ

AEK euskaltegia Plaza Txikitik G.Kurutzelaegi kalera aldatu izana jakinarazteko eta lokal berria inauguratzeko ekitaldia egin genuen hilaren 17an. Ekitaldia xumea bezain goxo izan zen, eta hau parte hartu zutenei eskertu behar diegu, beraz, berriz ere, eskerak: udal agintariei, alderdi politikoei eta bestelako erakundeetako ordezkariari, Udaleko euskara eta kultura teknikariari, AEKko arduradunari, Mikel Olaizola bertsolariari, Haritz dantza taldeko Ane Astigarragari, Udal txistulari taldeko Andoni Urbietari, Alex Mendazona eta Esther De Torres ikasleei eta gainerako ikasle, irakasle, AEK-lagun eta, oro har, herritar guztiei.

Berriz ere gogoratu AEK euskaltegiaren helbidea: G.Kurutzelaegi, 10 (Toletxegain tren geltokiaren parean). Telefonoa: 607 601 423, eta e-posta: elgoibar@ae.eus.

Elgoibarko AEK

► LAGUNTZA ESKE

Arnaldo askatu herri ekimenekook herritarren laguntza behar dugu Arnaldo Otegi aske uzteko eskatzeko Donostian urriaren 17rako, larunbata, antolatu den manifestazioaren aurre kanpainiarako.

Prest zaudetenok mesedez ager zaitzete hurrengo urriaren 5ean, astelehena, Elgoibarko LABen egoitzan 19:00etan egingo dugun batzarrera.

Han ikusiko zaituztegunakoan, Eskerrik asko eta agur bat,

Arnaldo Askatu, Politika Askatu Herri Ekimena

► ESKERRIK ASKO

San Roke auzoko bizilagun bat naiz, eta eskerrak eman nahi dizkiet Elgoibarko dultzaineroei, igandean, hilaren 20an, gure auzoraino igo zirelako eta goiza girotu zigutelako. Auzotar bat

baino gehiagok komentatu dugu kontu hau. Ederra izan zen etxeko lanak egiten ari ginela dultzaineroei entzutea.

San Rokeko bizilagun bat

► AMAITU DA AURTENGO SANLO BEERFESTA. ESKERRIK ASKO DENOI!

Hainbat eta hainbat jende bildu gara lau egun hauetan giro ezin hobean Sanlo Beerfestaren inguruan. Zoragarria izan da guztion parte hartzea; horregatik berriz ere eskerrak ematen dizkizuegu zuei, jokalariei, entrenatzailei, ordezkari, guraso, familia, lagun, jarraitzaile, herritar, Udala, inguruko taberna eta auzokideak... eta gure festa egiten lagundu diguzuen guztioi! Gure barkamenak egun hauetan endredurik sortu badugu; mila esker zuen pazientzia, laguntza eta ulermenagatik. Hurrengoan berriz ere elkar ikusiko dugulakoan, ondo izan! Si-reetakebu!

Sanlo EKT

► BI ADMINISTRARI ELGOIBARKO UDALERA KO

Tokiko enplegu planaren barnean kokatuta, Elgoibarko Udalak aldi baterako bi administrari behar ditu. Posturako berriak burua aurkeztu nahi dutenek lanbidera, euskal enplegu zerbitzura, jo behar dute hautagaitza erregistratzeko. Epea hil honen amaierara arte luzatuko da, 29ra arte zehazki.

Lanpostura aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da administrari profil profesionala izatea, gutxienez EGA ziuertagiria edota baliokidea izatea eta lanbiden alta egoeran egotea.

Elgoibarko Udala

► SANLO, DENAK EZ DU BALIO

Plaza Txikiko bizilagun bat naiz. Urtean zehar nahikoa pazientzia izaten dugu zaratari dagokionez, musika talde ezberdinen entseguak dira eta Galizia-

ren asteburuko festa dela-eta, Sanbartolometako barrakak... Hori nahikoa ez eta aurten Sanlo Eskubaloi Elkartekoek garagardo festa antolatu dute ostegunetik igandera bitarte. Eta balantzea oso negatiboa izan da. Ostiralean, goizaldeko ordubi eta erdietan musika ozen jarrita zegoen eta guk ezin genuen lorik egin. Zapatuan, zuzeneko musika egon zen ia goizaldeko ordubata arte eta gero, musikaren faltan, han bildutako koadrila galantak ozen baino ozenago kantatzeari eta edalontziekin mahaiak kolpeak jotzeari ekin zion. Goizaldeko hiruretan gu lorik egin ezinda geunden. Pentsatzen dut haiei isiltzeko eskatzea ez zitzazuela bururatu, edariak kontsumitzen ari zirelako. Ba, dirua lortzearren denak ez du balio. Zuen taldeetako jokalariei kontrarioenganako errespetua bezalako balioak erakusten dizkiezuela pentsatzen dut. Jakin ezazue Plaza Txikiko bizilagunekiko errespetu gutxi erakutsi duzuela. Hori dela-eta, espero dut berriz Plaza Txikira ez etortzea.

J. E.

► ESKERRIK ASKO

Joan zen domekan Elgoibar *Bi Erroberatan* egitasmoa antolatzea ahalbidetu zenuten guztioi eskerrak beroenak, Kalamua Guraso Elkartetik.

Esker mila Gurutze Gorriari, Udaltzaingoari, Lagun Taldeari, gerturatutako kazetariari, Emugiri eta nola ez boluntario lanera agertu zineten guztioi eta parte hartzailei. Beste urte betez, kirola lehiakortasunik gabe gozatzea lortu genuen. Herriko familia desberdin asko elkarrekin bizikletan herrian zehar ikusteak zeharo pozten gaitu. Horrelako erantzunarekin, gustura asko jarraituko dugu lanean! Datorren urtean berriz ikusiko dugu elkar!

Herri Eskolako Kalamua guraso elkarte

36ko Gerran hildako gudarien ahalegina eskertu eta oroitu dute Zirardamendin



Jose Landa eta Jose Maria Otxoa de Txintxetru gudariak Frankismoko hainbat hamarkadaz egin ohi zuten moduan, 36ko gerran hildako gudarietako jomenaldia egin zieten domekan gudari haien senideek eta hainbat erakundetako ordezkariak, tartean Elgoibarko Udaleko EAJ eta EHBilduko ordezkariak zabalak. Gudari haien omenez 1952. urtean jarritako gurutzean lore-eskaintza egin zuten eta gudari haiek egindako ahalegina eskertu eta oroitu zuten guztiek.

AEK euskaltegiak egoitza berria du, Gabriel Kurutzelaegi kalean



Aita Agirre plazatik Gabriel Kurutzelaegi kaleko hamargarren zenbakira aldatu da lekuz AEK euskaltegia. Joan den asteko eguenean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Amaia Larrañaga Elgoibarko AEKko irakasleak, AEKren koordinatzaile nagusi Mertxe Mujikak, Elgoibarko Udaleko Euskara zinegotzi Maialen Gurrutxagak, Esther De Torresek AEKko ikasleak eta ikasle izandako Alejandro Mendazonak hartu zuten hitza ekitaldian. Bideoa: www.barren.eus.

Artile tailerra jarriko dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Hileko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren. 09:00etan hasiko dute azoka, Kalebarren plazan eta 14:00ak arte han egongo dira baserritarrak sasoian sasoiko produktu onenekin. Txosna, berriz, 11:00etan zabalduko dute, eta oraingoan Debabarrena areto futboleko kirol taldeak hartuko du ardura. Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin egindako pintxoak prestatu eta salduko dituzte. 12:00etan kale kantariak irtengo dira kaleak kantuz girozera eta ordu horretatik 14:00ak bitartean Kalebarrenen izango den artile tailerra antolatu dute. Eguerditik atzera ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan.

Beinke! bertso eskola prest da ikasle berriak hartzeko

Beinke! bertso-eskolak zabaldu du izena emateko epea. Bertsolaritza ezagutarazteko eta sustatzeko, eta ahozketasuna eta komunikazioa lantzeko sortu zuen bertso eskola Elgoibarko Izarrak, eta bi adin tarteko gaztetxoei dago zabalik: 5 eta 9 urte bitartekoei eta 9 urtez gorakoei. Urteko kuota 50 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 45 eurokoa). Informazio gehiagorako eta izena emateko: www.elgoibarkoizarra.eus. Irailaren 28a da izena emateko azken eguna.

'Daixola!' programan izena emateko epea, zabalik

Zabalik da Elgoibarko Izarraren *Daixola!* programan izena emateko epea, urriaren 2ra arte. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko ikasleei zuzendutako programa da, eta lagun arte naturalean euskara sustatzea du helburu nagusi. Koadrilaka eman behar da izena, eta izena ematen dutenek euskaraz jarduteko konpromisoa hartuko dute. Ikasturte osorako kuota 33 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 30 eurokoa) eta bi zatitan ordaindu ahal izango dute. Informazio gehiagorako eta izena emateko: www.elgoibarkoizarra.eus.

Gaur hasiko dituzte Aiastian sanmigelak eta martitzenera arte, San Migel egunera arte, luzatuko dituzte ospakizunak



Aiastia auzoa jaietan murgilduko da gaur. 19:00etan hasiko dituzte San Migel jaiak, ohiko kanpai jotzearekin eta ondorengo afariarekin, eta afalostean, Haritz Dantzari Taldearen ekitaldia izango dute, istripuz hil zen Borja Uzuriaga aiastiarren omenez. Asteburua, berriz, ekitaldiz bete-betea dator. Umeentzako jolasak, bazkaria eta parkea izango dira bihar, 13:00etatik 17:00ak bitartean, eta ordu horretan hasiko da urteroko artzain txakur txapelketa, bederatzigarrena –Euskal Herriko arraza libreko finala izango da–. Gauean, berriz, eta urtero legez, bertso-afaria egingo dute, eta aurten Amets Arzallus eta Andoni Egaña izango dira bertsolari gonbidatuak. Ondorenerako erromeria eta bolo txapelketa antolatuta dituzte. Domekan, berriz, Aiastiako lgoera eta Idi-demak izango dira eguneko ekitaldi nagusiak, eta egun bateko atsedena hartuta, martitzenera, San Migel egunean bukatuko dituzte jaiak. Egitarau osoa: Agendan.

Sanloren garagardo azoka, arrakastatsua



Eguenean egin zuten SanloBeerFest garagardo azokaren inaugurazio ofiziala. Udal agintariek eta Sanlo kirol taldeko zenbait babeslek izan zuten, ohi legez, garagardo azoka ofizialki zabaltzeko ardura. Inaugurazio ekitaldiaren ostean, txistorra, ganbak plantxan eta muskuiluak dastatzeko aukera izan zuten pintxo potean, eta gauean Dardara taldeko Garazi Ayesta eta Xabi Larrañagak kontzertu akustikoa eskaini zuten. Hasiara baino ez zen izan hori. Barixaku, zapatu eta domekan ere izan zen garagardoaz eta musikaz gozatzeko aukerarik karpan. Melissa and the Jacks taldeak eta A2an bikote elgoibartarrak girotu zituzten barixaku eta zapatuko gauak eta domekan paella handi batekin amaitu zuten aurtengoa.

Elgoibarko Klub Teknologikoan izena emateko epea zabalik dago


Klub Teknologikoa jarriko du martxan Elgoibarko Udalak zientziarako eta teknologiarako zaretasuna sustatzeko. Irailaren 28an hasiko da egitasmoa, baina egitasmoa bera aurkezteko, gurasoentzako bilera antolatu zuten atzarako, Kultur Etxean. Kluba bera aurkeztu zutenean ere esan zuten Udaletik: aisialdi alternatiborako eskaintza zabaldu nahi zutela eskola orduz kanporako. Klub honetan izena ematen duten umeek irudimena landuko dute, robotikaren, bideo-jokoen diseinuaren, sakelako telefonoentzako aplikazioen garapenaren eta animazio digitalen arloetan egingo dituzten zientzia-proiektuen eta proiektu teknikoaren bidez. Hori guztia, irudimena eta sormena sustatzea bezalaki, behar-beharrezkotzat ikusten du Elgoibarko Udalak herriaren beraren izaera industrial mantendu eta bultzatzeko. Horregatik, lehentasuna ematen diote haurren artean bokazio tekniko sustatzeari, gaurko haurrak izango direlako etorkizuneko industriaren sostengua. Interesatuak honako webgune honetan eman dezakete izena: <http://camptecnologico.eus/klub-teknologikoa-elgoibar/>

Liztor beltza, kaleko ikara eta erleen hiltzailea



Askok dute liztor asiar edo liztor beltzaren berri. Gehienak haren ziztada arriskuak ikaratzten baditu ere, espezie inbaditzailea izanik, pertsonena baino gehiago erleen etsaia da, baina. Ez da denbora asko San Rokeko etxe batean liztor habia bat azaldu dela, eta kendu badute ere, liztor beltzek kalte egiten jarraituko dute aurrerantzean ere. Ikara sortu duen zomorro honi buruz hitz egin digute Debemen Landa Garapen elkarteko ordezkari Ane Esnaolak, liztor habiak kentzen ibiltzen den Josu Merino suhiltzaileak eta Haritz Arrieta erlezainak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



San Rokeko etxe bateko balkoian kendu zuten liztor asiarren habia bat Debemeneko teknikariek.

Liztorra igaro den lekutik eltxorik ezin da pasa, esaeraren arabera. Liztorra asiarra denean –liztor beltza– eltxoak ez ezik erlerik ere ezin da paretik pasatu, liztorrak jan egin ditzakeelako. Txinakoa den liztor beltza 2004an iritsi zen Europara, Bordeleko portura, egurrez kargatutako ontzi batean. Landetan barrena, Ipar Euskal Herriatik 2010ean sartu zen Hego Euskal Herrira eta Elgoibarren 2013an agertu zen liztor beltzen lehen habia. 2014an 27 kendu zituzten Elgoibarren eta hamar Mendaron. Aurten, berriz, orain artean, 17 eta lau, hurrenez hurren.

LIZTORREN ITXURA

Habiak bai, baina liztor beltzak, handiak izan arren –30mm luze– ez da hain ohikoa jende arruntak bereiztea. Haritz Arrieta erlezainak azaldu digunez, liztorretan tamaina asko daude, erleak baino txikiagoetatik hasi eta hemen handiena den liztortzarrera

(3,5 zm). Koloreari dagokionez, liztor beltzak laranjatxoagoak dira, baina atzeko aldea nahiko beltza daukate. Hemengoetan marra hori-beltzak oso markatuta daude. Erleak, berriz, homogeneoagoak dira ukitu marroiarekin.

Itxurak itxura, bere elikadura da liztor asiarra besteentzat arriskutsu egiten duena. "Liztorrek, helduak direnean, fruta heldua jaten dute, eta azukredun gauzak jatea dute gustuko. Beste intsektuak ere ehizatzen dituzte, eta animalia ustelduren bat baldin badago, sarri ikusten dira inguruan bueltaka. Proteinak hartzen dituzte bereriki intsektuen gorputzeko ataletatik, beren larbentzako", esan digu Arrietak. Jateko ohiturek, beraz, nekazaritzan eta ingurumenean dute eraginik handiena. Debemenetik jakinarazi dute ondutako frutak hondatzen dituztela, polinizazioan gabeziak eragin ditzaketela eta harrapari handiak direnez, zomorro espezie asko arriskuan daudela.

Erlezainen

elkartek eta

Foru Aldundiak

eskatuta tranpak

jartzen dituzte

udaberrian liztor

erregina

fundatzaileak

harrapatzeko

ERLEZAINEN KALTE

Beste edozein intsektu baino gehiago erleak kaltezen ditu liztor beltzak, eta ondorioz, erlezainak. Ezti produkzioa gutxituko duela, erle populazioa gutxitzen dela diote Debemenekoek.

Haritz Arrietak, erlezaina izanik, bertatik bertara bizi du hori. Esan digunez, erleek aurrez izan zuten beste arazo bat: barroa parasittoa. Erle basatiak desagerrarazi zituen eta erleak erlezainen esku baino ez ziren gelditu. Orduak erlezainak derrigor-tuta daude akaroa akabatzeneko pozoina erabiltzera. Liztor beltza beste kolpe bat gehiago izan da. "Erlauntzan, liztorren presioa handia bada, nire erleak ez dira apenas irteten jateko bila, barruan gelditzen dira beldurtuta eta mugimendua oso eskasa da. Beraz, barruan beren erreterbak jaten dituzte, eta jatekorik sartzen ez bada, pixkanaka hiltzen dira". Liztor beltzak eragindako kalteen eraginez, ekoizpenean aldaketarik izango dela uste du eta esan digu jendea ibili dela probak egiten erleak bai, baina liztorrak pasatzen ez diren sareekin.

Animaliak tranpa bidez harrapatzen dira askotan, eta erlezainen elkartek eta Foru Aldundiak eskatuta, tranpak jartzen dituzte udaberrian erregin fundatzaileak harrapatzeko. "Tranpetan jausten direnak fundatzaileak izanik, harrapatzen den liztor beltz bakoitzeko habia bat gutxiago egongo da, baina tranpa horietan liztorzarra, hemengo liztorra, ere jausten da. Asiarra baino pixka bat handiagoa da, baina ez du erlerik apenas jaten. Neiker-Tecnalia (Ikerketa eta Garapen Teknologikorako Euskal Institutua) ari da feromona bidezko tranparen bat ikertzen liztor beltza bakarrik erakartzeko", kontatu digu Arrietak. Berak erlauntza gutxi ditu, eta ez du tranparik jartzen. Gainera, erlezaintza egiteko modu asko

daudela uste du eta iruditzen zaio liztor beltzarekin orain arte bezala ezingo dela jarraitu. "Urte bukaeran askoz ezti gutxiago jasoko da, beraz, horrek beste sistema bat erabiltzea eskatuko digu erlezaintzarako".

PERTSONENTZAT ARRISKUTSU?

Fuituei eta beste intsektuei kalte egin diezaiekeen arren, pertsonak apenas duten arriskurik. Habiak gizakiaren inguruan egiten dituzte, eta janari bila batzuetan jendea dabilen lekura joaten dira, baina ziztatzen benetan gertu egon beharra dago. Hori bai, ziztatuz gero, larrialdietara azkar joatea komeni da. Debemeneko teknikari Amaia Esnaolak arrisku txiki horren harira zera esan digu: "Debemenekoek kendu dituzte habiak eta estreinakoz San Rokeko etxe horretan egin zion zizta liztorrak langile bati. Bizirik zegoenetako bat etxe barrura sartu zen".

Josu Merinok kontatu digu San Roke edo San Lorentzo arteko bide gurutze aldameneko platanondo batean liztor habia bat kentzeko deitu zirela: "Nik aurrez bi edo hiru kenduak nituen, baina nire lankideak ez. Nirekin etortzeko esan nion, baina lasaitzeko, pila bat aterako zirelako. Ziztatu zuten, ikaratu zen eta ez zuen traiea kentzerik nahi. Benetan bizi arte ez da jakiten".

Haritz Arrietak ortuan egiten du lan eta esan du noizbait liztorren batek eskuan jo arren ez dela ezer gertatzen. Hori bai, argitu digu liztorra jaten ari den fruitu bat batzera joan eta konturatu ezean ziztada handia jaso daitekeela, eta ziztada erlearena baino dezente gogorragoa dela, minberagoa. Baina ziztada bat jasotzeko aukera oso txikia da. Pertsonak ikusi eta ez dira be-

Habia txikitik handira

Liztor habiek itxura berezia dute benetan. Egurra murtzikatu eta liztuarekin nahastuz sortutako zigarro-paperarekin eginak dirudite. Guk ikusterako, hilabetetik hilabetera prozesu zehatza izaten da habion bilakaeran.

- ▶ Martxotik apirilera habia txikiak egiten dituzte aterpean, leihoetan, biltegietan... Kasu horietan arriskua saihesteko habia kentzea ez da nahikoa, erreginak hil behar dira.
- ▶ Maiatzetik aurrera: lehen habiak utzi eta behin betikoak egiten dituzte liztor erreginak eta langileek. Habia horiek leku irekiagoan egiten dituzte, zuhaitzetan zein eraikinetan. Habia borobila da hasieran, eskubaloiko baloiaren tamainakoa.
- ▶ Irailean edo urrian izaten dute tamainarik handiena -40-80 zentimetroko diametroa eta metroko altuera-, eta madariaren formakoa. Habia handi batek 2.000 liztor eduki ditzake eta 6.000 larba eta arrautza. Erleak, berriz, 50.000.
- ▶ Azaroan eta abenduan habiak hutsik gelditzen dira, eta liztorrak lurperatu egiten dira negua pasatzeko.

Liztor beltzaren habia.



Goian, liztor beltza, eta behean, liztortzar bi. Argazkiak: Ander Izagirre.

rengana askotan joaten”.

Dena dela, Merinoren ustez, jendeari esan behar zaio habia bat ikusi eta, gertuagotik ikusi nahi izanez gero, 200 metroko distantzia mantentzeko eta arropa luzearekin joateko. “Habiak deigarriak direnez, gurasoak umeein joaten dira begiratzera. Pentsa dezakete lurrezkoak direla, baina paper erakoak izanik, zerbait botaz gero zuloa egin eta irteteko arriskua dago”.

HABIAK KENDU

Liztor beltzak eragiten dituen kalteak saihesteko habiak deuseztea da irtenbidea. Suhiltzaileak hasi ziren habiak kentzeko lanetan, eta orain ere, hala egiten dute jendea arriskuan egon daitekeen tokietan edo leku iristezinetan. Gainerakoan Debemenek du habiak suntsitzeko ardura. Beraz, norbaitek habia ikusiz gero, udaltzainei eman behar die horren berri eta haiek bideratuko dute gaia Debemenera.

Batzuetan kendu egiten badituzte ere, lehen pausoa jarduerarik gabe uztea da. “Pozoindu eta liztorrak hil egiten dira, eta habia pixkanaka desegin egiten da. Baina San Rokeko etxe hortan inor bizi ez denez, nagusiak erretiratzeko eskatu zuen. Horretarako, pozoina eman eta egun bat edo bira joaten gara kentzera”, esan digu Amaia Esnaolak.

Habiak kentzea erraza dela dirudien arren, protokoloa “astuna” dela dio Josu Merinok. “Eskafrenda erako arropa bereziak jantzita joan behar da, eta ondo egiteko, hobe da iluntzean edo goizeko lehen orduan joatea. Kendu behar direnean, pozoin bat sartzen da habiara orratz batekin. Hurrengo egunean begirutzen da eta oraindik liztorrak baldin badaude pozoin gehiago bota eta gero kendu. Zabor poltsa batean sartzen dugu, ziurtatzeko zerbait irtenez gero, bertan geldituko dela. Gainera, habiak, nahiz eta handiak izan, oso hauskorak dira, zigarro-paperaren parekoak. Noiz edo noiz gertatu daiteke trajea eraman arren, batik bat eskuetan, ziztadaren bat izatea. Baina beharrezkoa da lasaitasuna”.

Suhiltzaileak eta Debemenekoak ondo prestatuta joaten dira, eta gainerako jendearentzat berez ez dira arriskutsuak, noiz edo noiz liztor hiltzaileak direla entzun arren. “Jendeak ez du horri buruzko ezagutzarik eta adarren bat mugituz gero, liztorrak aztoratu egiten dira, eta ondorioz, jendea urduritu egiten da liztorrak pikatuko dituelakoan”, dio Merinok.

Liztor habiak ikusgarri, liztor beltzak erleen kalterako eta alarma piztuta. ‘Erle uxatuak, ezirik ez’ eta martxa honetan liztorrek erle asko joanarazi edo akabatuko dituzte.



Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida


Garazi
Sampredo
Arando
RPS 169/15
ERROSARIO
HAGIN KLINIKA
Errosario, 7
Elgoibar
943 743 679

Uzuri RPS 183/12
MULTIÓPTICAS
AUDIOLOGIA ZERBITZUAK
ÓPTIKA
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Ostolaza, 7 - DEBA
Tel.: 943 192 192

Mari Jose
RUIZ PORRES
Doktorea
GINEKOLOGOA
R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

Jeku
eder
hartz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hartz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 943 628
www.fisio-mas.com
RPS 115/18

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA
RPS 88/15
Elizburu, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567
Asteleheneetik ostiraleraino
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com

Mixel Etxekopar musikari zuberuarrak kontzertua eskainiko du urriaren 2an



Mixel Etxekopar (Gotaine-Iribarne, 1963) txirulari, kantari eta bertsolari zuberuarrak kontzertua eskainiko du urriaren 2an Elgoibarren, Elgoibarko Izarrak Udalarekin eta herriko beste hainbat eragilerekin batera antolatu duen *Haizea dator Iparraldetik!* zikloaren barruan. Gotzon Garate euskaltzalearen omenez Kultur Etxeko Sotoan izango da kontzertua, 23:00etan. Kontzertu hau preseski Sinuose elkartearekin elkarlanean antolatu du Elgoibarkok Izarrak, eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, Sotoan bertan, 3 euroan.

Dantza afrikarra ikasteko aukera Mendaron, Marie Toure ginearraren eskutik



Marie Toure Ginea Konakriko (Afrika) dantzariak Afrika mendebaldeko dantza ikastaroa eskainiko du Mendaron. Ikastaroa emateko hamabi laguneko taldea osatzea jarri zuen baldintzat eta hori lortuta, ostegunetan hasi zituzten eskolak. Hala ere, oraindik badago izena emateko aukera. Momentuz abenduaren 17ra arteko ikastaroa izango da eta dantza eskolak ostegunetan izango dira, Azpilgoetako Kultur Etxean, 18:30etik 20:00etara. Hilabeteko kuota 30 eurokoa da. Norbaitek izena eman nahiko balu, entseguetako lekuan agertu beharko luke ostegunetan, ikastaroko ordu tarte horretan.

Sallobente auzoko historia ezagutzeko aukera, Pello Arrietaren eskutik

Maalako parketik abiatu eta Sallobente-Ermuarango ermitara arteko bideko ondare historikoa ezagutzeko aukera izango da irailaren 28an, astelehenean. Haizea emakume taldeak antolatu du irteera, eta Pello Arrieta historialari elgoibartarrak emango ditu bidean azalpenak. Maalaren batuko dira hala nahi duten guztiak, handik abiatzeko. Irteera 17:00etan izango da.

Burua lantzeko gimnasiari buruzko tailerra, Jubilatuen Egoitzan

Memoria lantzeko eta burua aktibo mantentzeko tailerra eskainiko dute Elgoibarko Jubilatuen Egoitzan, urriaren hasita. Ikastaroa jubilatutako guztiei dago irekia eta ikastaroak zortzi hilabete iraungo ditu, urritik maiatzera. Eskolak ordubetekoak izango dira, eta egunetan izango dira egoitzan bertan, 15:30etik 16:30era bitartean. Interesatuak bi aukera dituzte izena emateko: 615 738 381 telefono zenbakira deituta edo Jubilatuen Biltokira bertara joanda, beti ere 11:00etatik 14:00ak bitartean.

Aire libreko margo lehiaketa, domekan, Mendaron

Aire libreko margo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko, irailaren 26rako. Aurreko urteetan legez, lehiaketako lan guztiarekin erakusketa osatuko dute gero eta lagun Betikoak taberna ondoko lokalean jarriko dute ikusgai ondorengo ordutegi honetan: asteleheneetik barixakura: 18:00etatik 20:00etara, eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

“Epaile ez naizenetan, entzuten gozatzendut puntuazioan pentsatu gabe”

► ENERITZ AZKUE BASURKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO EPAILEA

Bertsolaritza gertutik bizi du Eneritz Azkuek (Mutriku, 1982). Umetan, ikastolan zaletu eta bertso paper lehiaketa bat irabazi ondoren, bertso eskolara joan zen. Bertso kantuan Eskolarteko txapelketan, Plazatik gaztetxeran, Lizardi eta Osinalde sariketetan eta Gipuzkoako txapelketan ibili ondoren, epaile lanetan aritzen da orain. Urriaren 3an, egungo bizitoki duen Elgoibarren jokatuko da Gipuzkoako final zortzirenetako bat, eta egun horretan epaile lanik egingo ez duen arren, bertsolariak kantuan direnean zer epaitzen duten azaldu digu Eneritzek, baita bertsolaritzarekin izan dituen eta dauzkan bizipenak ere.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Noiz hasi zinen epaile lanetan?

Mutrikuko bertso eskolan ari nintzen gustura, baina iritsi zen momentu bat pentsatu nuena: ‘Bertsotan aurrean ibiltzekotan denbora asko eskaini behar zaio, eta nik ez neukan. Bertsolari ibiltzen nintzanean esaten nuen: ‘Epaile lana egingo nukeen azkena da’. Baina ama izan nintzanean erabaki nuen bat-batean bertsotan aritu ez arren, bertsolaritzarekin lotuta jarraitu nahi nuela eta bertsotako maisuak bultzatuta, epaile lanetan hasi nintzen. Epaileak falta ziren, ikastaroa egin genuen eta hor ikusi nuen seriotasuna eta arauak zeudela eta horrek konfiantza eman zidan. Plazatik Gaztetxeran hasi eta Lizardi sarian, Eskolarteko txapelketan, Gipuzkoako bertsolari txapelketan eta Euskal Herrikoan izan naiz epaile.

◆ Zer epaitzen duzue?

Bertsolariek badakizkiten epai irizpideak daude. Hizkuntza zuzentasuna; gaien sartu den ala ez; bertso kideari erantzun al dion; denbora – jendeak



uste arren sekulako bertsoa izan dela pentsatzen bi minututik gora pasatu baditu ez da erabat batbatekoa eta epaitzean eragina du-. Jendeak pentsatzen du guk zigortu egiten ditugula bertsolariak, baina bertso ona saritzen dugula uste dugu guk. Garrantzitsuena guri bertsoa iristea da. Saio bakoitzean horregatik gaude bost epaile, denoi bertso bera ez zaigulako berdin iristen. Zerikusia dauka bakoitzaren kultura mailak, sexuak, sentsibilitateak... Entzulea anitza denez, saiatzen gara epaimahaia ere hala izaten. Gainera, ez da gauza bera bertso bat txapelketan, ingurune batean, txalo zaparrada artean, aurrez bertso asko entzun ondoren epaitzea edo gero aztertzea, grabazioa entzunez edo irakurriz.

◆ Kantaera kontuan hartzen duzue?

Epai irizpideetan ez dago kantaerarena jasota eta horrekin ez dugu puntu bat gehitzen edo kentzen, baina bakoitzari iristeko orduan bertsolariren kantaerak duen badauka eragina, eta nahigabe, baldintzatu dezake. Erritmoak ere badu zeresanik, oso motel edo azkarregi kantatuz gero joan egin daiteke bertsoa.

◆ Zuek ez duzue entzule arrunt batek bezala entzungo saioa, ezta?

Ez. Bertso asko entzun behar ditugu ezerk ihes egin gabe. Objektiboak izan behar dugu, berdin du zein dagoen kantuan. Niretzat zailena da kontzentrazio maila hori. Faseren batean epaile egotea tokatzen ez zaidanean, entzuten gozatu egiten dut puntuazioan pentsatu gabe.

◆ Orain artekoan zer moduzko maila eman du Gipuzkoako txapelketak?

Sailkapen faseak bestela ezagutuko ez nituzkeen bertsolariak ezagutzeko aukera eman dit, eta sorpresak izan ditut. Oso ondo prestatuta datoz gaurko gazteak, bertso eskolan lan handia egiten dute, eta polito egiten dutela bertsotan gaietan, doinuetan... igartzen da. Entzuleek ere epaile gisa jokatzen dute, oso exigenteak dira.

◆ Gerta liteke epaileok bertso berari puntuazio oso ezberdina ematea?

Oso ezberdina ez. Entrenatzen gara horiek neurtzeko. Bakoitzari ezberdin iris-

ten zaio, baina denena, beraz, parekatu egiten da. Esaterako, nik 5 puntu eman badizkiot eta besteak 7, hurrengoan besteak emango dizkio 6 eta nik 8. Ezberdintasunak egon diren bertsotan zergatik izan den aztertzen dugu entrenamenduetan. Izan daiteke txiste berde batek niri inolako graziarik ez egitea eta horregatik zigortzea eta beste bati sekulako grazia egitea.

◆ Saioko puntuazioa baxua izan bada askotan epailei botatzen zaie errua.

Denen gustua egitea ez da erraza eta beti egongo dira kexak. Beraz, txapelketa hasi orduko epaile taldekoak saiatzen gara ezer ez irakurtzen –besteak beste sare sozialetan esanak– ez kontajiatzeko.

“Jendeak pentsatzen du zigortu egiten ditugula bertsolariak, baina bertso ona saritzen dugu”

◆ Bertso kantuan parte hartutakoa zara Gipuzkoako Txapelketan. Nola gogoratzen duzu?

Gaizki pasatu nuen. Tentsio puntuak on egiten zidan bertsolaria nintzen ni. Taula gainean gehiago ematen nuen bertso eskolan baino. Ez dakit nola ateratzen zitzaizkidan bertsoak, baina irakasleak esaten zidan hazi egiten nintzela. Baina gaizki pasatzen nuen, eta uztea erabaki nuen ez zidalako konpentsatzen nerbio haiek pasatzea. Ondo ateratzen bazitzaidan ondo pasatzen nuen taulan, baina aurreko egunak ez zidan merezi. Baina urduritasunak urduritasun bertsotan hasi nintzen Mutrikuko bertso eskolako lagun arteko giroa ez nuke aldatuko. Gaztetxe-koekin txapelketa antolatzea, saioetara elkarrekin joatea, Azpeitiko bertso eskolakoekin egindako trukeak... oso ondo pasatu izan dut beti.

Final zortzirenak urriaren 3an Elgoibarren

Udaberrian Gipuzkoa Bertso-tan sailkapen fasea jokatu ondoren, hasi da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. 43 bertsolarik hartuko dute parte guztira, baina oraingoan ez da elgoibartarrik izango. Gai jartzaileen taldean 9 lagun daude, tartean Irati Agirreazaldegia, eta 19 epaileen artean Eneritz Azkue dago.

Beasainen jokatu zen lehen final zortzirena eta asteburu honetan Azpeitian eta Lasarte-Orian geldialdia egin ondoren, Elgoibarren izango du txapelketak hitzordua urriaren 3an, 17:30ean, Herri Antzokian. Saioa Elgoibarko Udalak lagunduko du. Manu Goigana, Unai Muñoa, Oihana Iguaran, Iñigo Gorostazu, Iban Urdangarin eta Manex Mujika bertsolariak eta Ion Zaldua gai jartzailea arituko dira.

Sarrerak jadanik salgai daude www.bertsosarrerak.eus helbidetan. 6 eta 16 urte bitartekoek 4 euro ordaindu beharko dituzte, bazkideek 6 euro eta sarrera arrunta 9 eurokoa izango da.

Eneritz Azkuek saiorako gonbitea egin du esanez, “Euskal kultura gustuko duenak aukera du herrian bertan bertso saio on bat entzuteko, bertsolari berriak eza-gutzeko eta sorpresa onak hartzeko”





Jesus Urizar, Jose Luis Badiola eta Santi Sarasketa

Basaur hiruko taldearen aurkezpena gaur, Elgoibarren

Duo Plaentxi izenarekin 25 bat urtez taula gainetan ibili ondoren, talde berriarekin datoz Jose Luis Badiola eta Jesus Urizar, pare bat urteko etenaren ondotik. Basaur taldea osatu dute, Los Veracruz talde entzutetsuko Santi Sarasketa eibartarrarekin batera, eta gaur emango dute Elgoibarren estreinako kontzertua, Txarridunan (22:00). Irrikaz daudela aitortu dute, baina aldi berean, urduri ere bai. "Oholtzara igotzen denak derrigor izan behar du tentsio puntu hori, profesionala bada behinik behin. Eta gu onena ematera goaz, beti bezala", esan du horren harira Sarasketak. Urteetako eskarmentua dute eta hasiberrien ilusioa; osagai primerakoak, primerakoa izan nahi duen kontzerturako.

- AINARA ARGOITIA -

Kantuak bizi ditu, eta luze ari zitzaien egiten jende aurrean azkenekoz kantatu zutenetik gaur arteko denbora. 2013ko Eibar Kantuan jaialdian eman zuen azkeneko kontzertua Duo Plaentxik, eta har hori bazuten Jose Luis Badiolak eta Jesus Urizarrek. Eta tentatu zuen batak bestea. Horixe behar zuten berriro kantuan hasteko: bietako norbaitek pausoa ematea. Bikoa baino hiru laguneko taldea nahiago zuen, baina, Urizarrek. "Rekintoa joko zuen norbait nahi nuen, hirugarren ahots bat izango zena. Hiruko batek beste joko bat ematen du, eta beti da ederra-goa", bota du. 1965. urtean Duo Plaentxi sortu aurreko etapan ere hiru izan ziren beraiek pare bat urtez, Nuvay izen pean —Ines Maiztegi zuten hirugarren taldekidea. Rekintoa jotzen zuen, eta abestu ere bai—. "Soraluzeko koadrilen egunean igo ginen gu biok lehenengoz oholtzara, beste hamar lagunekin batera parodia bat egitera. *Espontaneoak* izenarekin aurkeztu ginen, eta *Galopera* eta *Yo vendo unos ojos negros* kantuak abestu genituen guk biok. Bigarren saria eman ziguten. Hura ikusi eta Ines etorri zitzaigun esanez hirukote bat osatu beharko genukeela eta Nuvay sortu genuen", azaldu du Badiolak.

Hiruko hura gogoan, Eibarrera jo zuten talderako hirugarren lagunaren bila. "Segurura jo genuen. Aspalditik ezagutzen genuen Santi, bagenekien oso ona zela eta huraxe behar genuen guk talderako", nabarmendu du Urizarrek. Eskarmentua bazuen, bai, Santi Sarasketak. Duela 40 bat urte, 30 bat urteko zela, Los Veracruz talde entzutetsua sortu zuen, Quique Garate, Benjamin Lariz eta Vicente Ramirez lagunekin batera, eta konta ezin beste kontzertu eman zituzten Euskal Herrian nahiz atzerrian. "Ez zidaten birritan esan beharrik izan. Poz handia hartu nuen, sei bat urte bazirelako Los Veracruz desegin zela, urte askotxo, eta ni kantatu gabe ezin naitzelako bizi. Gure etxean denok izan gara kanturakoak. Nire anaia tenorea zen eta ama bakarlarria koruan. Eta gaur oraindik ere, sarri kantatzen dugu guk Eibarren, txikiteoan gabiltzala. Gure buelta honetan ikaragarri gustatzen da musika mota hau. Atze-

rrira joan ziren pilotariak ekarri zituzten kantu hauek guztiak eta sasoi batean hemen bertakoak baino gehiago kantatzen zituen jendeak Eibarren eta inguruetan", esan du Sarasketak.

MUSIKA LATINOAMERIKARRA

Musika latinoamerikarra egiten jardun izan ziren urteetan ba-koitza bere aldetik eta ez zuten arazorik izan elkar hartzeko. "Kantu gehienak Duo Plaentxik kantatzen zituenak dira, eta Santi moldatu behar izan da gurera. Baina gizon hau oso azkarra da, eta erraz moldatu da", esan du Badiolak. Eskertu ditu lagunaren hitzak Sarasketak: "Zer den laguna izatea! Ona ez dakit, baina saiatua banaiz. Txakurra ondoan hartu eta hantxe ibiltzen naiz jo eta sua. Kantuan ez diit ikasi txakurrak, baina gustura egoten da". Gutxienez astean birritan elkartzen dira entsegutarako, Eibarren, Rakano elkartearen. "Bitxia da izena, ezta? Miserablea da *rakanoa*, txikitoa ordaintzen ez duena, adibidez; ez da hauen kasua! Estimatuak dira bi hauek Eibarren. Etorri diren beste alditan txikitariak kobratu gabe etorri dira eta nola ez ditu ba estimatuko jendeak!", bota du horren harira Sarasketak. Izen bitxiez ari garela, taldearen beraren izenez galdetu diegu. "Osorok [Jose Antonio Osoro Elgoibarko Udal Musika Bandako zuzendari izandakoa] proposatu zigun Basaur izena", esan du Badiolak. Hiru deituren silabekin osatu dute izena: Badiola, Sarasketa eta Urizar. Horixe dute aurkezpen karta. Duela lau hilabete elkartu zirenetik hainbat kontzertu eman dituzte dagoeneko. Soraluzen bi, Zarautzen beste bat eta Ezkarain laugarrena, eta lotuta dute beste emanaldi bat azaroaren 6rako, Elgetako Espaloia kafe-antzokian.

Pozik daudela nabari zaie, eta iraun nahiko lukete "ahal den luzaroen". Pro-mozio lanetan ari dira orain, eta deia egin eta barrua husteko baliatu du Badiolak. "Gustatuko litzaiguke Elgoibarren ere jotzea. Ordainduta diren ekitaldietarako kanpokoak ekartzen dituzte guk egin genezakeena egitera, eta doakoetarako deitzen digute guri. Gustura egiten dugu hori ere, eta aitortu behar dut sutu egiten nauela horrek".

"Musika latinoamerikarra egiten dugu. Denetarik. Mexiko, Argentina, Txile, Paraguai... nazio guztietako kantuak ditugu gure kantutegian"



Arg.: Soarte

Sanlo eskubaloi taldearen familia-argazkia: Ospakizunerako eta taldearen indarra erakusteko asteburua izan dute Soarte taldeak antolatutako argazki baliatu dute, jakina. Iaz bezala, hamalau talde osatu ditu aurten ere Sanlok. Lauko senior nesken taldea Zilarrezko Nazional Mailan, Zilarrezko Nazional Mailan, Gabaz seniorren taldea Gipuzkoako lehenengo mailan, Jubenil nesken Tecnifuelle taldea Euskadiko Txapelketan, Jubenil mutilen Tecnifuelle taldea Euskadiko Txapelketan, Pneumax kadete nesken taldea Euskadiko Txapelketan, Deca eta Bankoa kadete mutilen taldeak Gipuzkoako Txapelketan, Casa Astigarrak kadete nesken taldea Euskadiko Txapelketan, Murgil eta Txarriduna mutilen taldeak Gipuzkoako Txapelketan infantiletan, eta Ikus, Dariobus eta Cometel nesken taldeak Gipuzkoako Txapelketan. Argazki eskolarako, berriz, 55 neska-mutilek eman dute izena, alebinetan. Izenemateak, hala ere, zabalik daude oraindik, eta benjaminetako izenak ere.

Oier Ariznabarreta durangarra eta Gurutze Frades iurretarra gailendu dira Gau Kros herrikoian



Durangarrak nagusitu ziren zapatuan Elgoibarren jokatu zen Gau Krosean: Oier Ariznabarreta durangarra (23:57) eta Gurutze Frades iurretarra (27:19). Mintxeta Atletismo Taldeak antolatzen du gau krosa, Juan Mugertza Nazioarteko Krosa antolatzeko dirua lortze aldera, eta aurtengoa seigarren edizioa izan da. Guztira 168 lagunek parte hartu dute aurten, eta horietatik 157k amaitu zuten proba, tartean 74 elgoibartarrek eta lau mendarorrek. Aipagarria izan da emakumezkoetan Cristina Villalobosek lortutako hirugarren postua. 30.17ko denbora behar izan zuen ibilbidea osatzeko. Argazki gehiago: www.barren.eus.



okoeak, eta familia-argazkia ateratzeko ere Kortea Forging Group Lehenengo Nazional Beristain taldea Gipuzkoako txapelketan, Kadete nesken taldea Gipuzkoako txapelketan, infantiletan. Eskubaloimateak hasi ere ez dituzte egin oraindik.

Debabarreneko lehenengo raid-a bihar, Elgoibarren

Bihar, hilaren 26an, jokatuko da Debabarreneko estreinako raid proba, Elgoibarren. Herriko lagun talde batek antolatuko du Morkaiko mendizale elkartearen babesarekin eta Elgoibarko Udalaren eta herriko beste hainbat eragileren laguntzarekin. Kirol proba ezberdinak uztartzen dituen iraupen luzeko orientazio proba da raid-a, eta Elgoibarko Euskal Herriko ligako proba izango da. 10:00etan hasiko da, Kalegoen plazan, eta 17:00etan bukatuko da. Berez, 52 bat kilometroko ibilbidea prestatu dute, 2.500 metroko desnibelduna, baina fisikoki ondoen daudenek bakarrik osatuko dute bide osoa. Guztira, bost atal izango ditu.

Urriaren 18an jokatuko da Debabarreneko BTT Martxa

Urriaren 18an jokatuko da Debabarreneko BTT Martxa eta urriaren 16ra arte egongo da izena emateko aukera, *kirol-probak.com* webgunean. Bi ibilbide izango dira aukeran: 25 kilometrokoa eta 45 kilometrokoa. Irteera eta helmuga puntua Elgoibarko Mintxeta kirolgunean izango da.

Elgoibar, bi erroberatan



Txirrindulari ugari batu ziren domekan Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak antolatutako *Elgoibar bi erroberatan* egitaspora. Elkarrekin egin zuten Kalegoen plazatik Sallobentara arteko bidea eta han talde argazkia atera ostean itzuli ziren berriz plazara. Zain zizutzen txorizo pintxoak eta freskagarriak, indarrak hartzeko. Ginkana eta lasterketa txikia ere egin zizuten plaza bueltan ondoren. Argazki gehiago: www.barren.eus.

Emaitzak

FUTBOLA

Getariako Keta 1 – Haundi 2
Elgoibar 3 – Ikasberri 1 (erreg.)
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 0 (Jubenila)
Urki 0 – Elgoibar 1 (A Kadeteak)
Burumendi 2 – Elgoibar 1 (B Kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Lauburu Ibarra 1 – Concepto Egile 3 (Naz. B)

ESKUBALOA (EUSKADIKO KOPA)

Lauko 19 – CBF Eharialdea 17 (Senior nes.)
Alcorta Forging Group 23 – Eibar 26 (Sen. mut.)

PALA

Ana-Xabi 12 – Nahia-Javi 22
Ana-Ibai 22 – Amets-Goiko 11
Nere-Buru 22 – Amaia-Josu 7
Lara-Julen 22 – Sonia-Iñigo 10
Idoia-Joseba 22 – Jone-Fernando 12
Patricia-Imanol 22 – Enara-Asier 7
Olatz-Igor 22 – Ainhoa-loritz 12
Lara-Julen 22 – Nahia-Javi 7
Idoia-Joseba 22 – Amaia-Josu 15
Ainhoa-lon 10 – Jone-Aitor 22
Inma-lon 11 – Nere-Buru 22
Marta-Kasta 22 – Nahia-Javi 20
Bittori-lon 17 – Ainhoa-lon 22

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 26
10:00 Elgoibar – Amaiak bat (Oh. Kad.)
12:00 Elgoibar – Anaitasuna (Kadeteak)
17:00 Haundi – Tolosa
Domekia, 27
10:00 Elgoibar – Arrasate (Oh. Infantilak)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 26
17:45 Lauko Elgoibar – San Adrian (Sen. nes.)
19:30 Alcortak – Beti Onak (Sen. mutilak)
Domekia, 27
10:00 Tecnifuelle Elg - Kukullaga (Jub. nes.)
11:30 Pneumax Elg - Kukullaga (Kad. nes.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 25
19:30 Lagunak 2 – Lapke (Nag. 3. maila)
20:15 Lagunak 1 – Intxurre (Nagusiak)
20:45 Lagunak – Tartaloetxe (Nagusiak)
21:30 Lagunak – Loiolatarra (Pala. 1. maila)

PALA (18:30ean hasita)

Astelehena, 28
Patricia-Imanol – Amaia-Josu
Olatz-Igor – Kasta-Marta
Sonia-Iñigo – Ana-Xabi
Ibai-Ana – Lara-Julen
Eguaztena, 30
Ainhoa-lon – Enara-Asier
Jone-Aitor – Inma-lon
Sonia-Iñigo – Nahia-Javi
Bittori-lon – Patricia-Imanol
Eguena, 1
Amets-Asier – Ainhoa-loritz
Kasta-Marta – Ibai-Ana
Patricia-Imanol – Nere-Buru
Ainhoa-lon – Idoia-Joseba

LANA.....**Eskaerak**

Etxeak, tabernak nahiz elkarteak garbitzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat, eta autoa ere bai.

☎ 635 354 776

Etxeak zein portalak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interna moduan jarduteko prest.

☎ 632 175 172

Umeak edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest. Eskolako etxeko lanak egiten laguntzeko prest. Euskalduna naiz.

☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile izateko edo garbiketari lanetarako prest.

☎ 636 882 838

Sukaldari edo zaintza lanetarako prest nago.

☎ 688 682 398

Adinekoak zaintzeko edo margotze eta muntaiari lanetarako prest.

☎ 640 209 948

Adinekoak zaintzeko edo garbiketari lanak egiteko prest.

☎ 632 564 679

Adinekoak zaintzeko edo margotzen zein parketa jartzen lan egiteko prest.

☎ 632 687 874

Garbiketari lanetan edo adinekoak zaintzen orduka lan egiteko prest. Interna edo asteburuetan ez.

☎ 690 134 485/943 740 672

Garbitasun lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin

☎ 631 834 632 (Ana Maria)

Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizita, kanpoan edo gauzez. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 631 506 763

Ospitalean zaintza lanak egingo nituzke asteburuetan edo astean zehar, gauzez.

☎ 642 636 525

Etxean bizita edo orduka etxeko garbiketari lanak egingo nituzke. Nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia daukat. Ospitalean zaintza lanak ere egingo nituzke.

☎ 642 381 844

Pertsona arduratsua umeak zaintzeko prest. Erreferentziak daukat.

☎ 630 410 294

Gauzez, zaintza lanak egingo nituzke, etxean zein ospitalean. Gidabaimena daukat.

☎ 631 343 232

Baserriko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 632 687 874

Eskaintzak

Elgoibarko denda baterako langilea behar da. Aste barrurako eta astebururako. Beharrezkoa da 25 eta 40 urte artekoa izatea eta euskaraz hitz egitea. Bidali Curriculumak helbide honetara: *ni-redenda@hotmail.com*.

Hoteleko harreran lan egiteko pertsona behar da. Beharrezkoa da: euskara eta ingelesa jakitea. Kontuan hartuko da hoteleko harreran esperientzia izatea eta frantsesa jakitea. Bidali curriculumak: *deba@aisiahoteles.com* helbidera.

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut

☎ 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umeri frantses eskolak emateko.

☎ 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da.

☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Alokairuan bizitzeko bi logelako etxe bila Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordaintzeko prest.

☎ 632 198 561

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Hilean 450-500 euroraino ordaintzeko prest.

☎ 661 064 027

Elgoibarko bikote nagusi batek etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren bertan, erdigunean. Igogailudun etxea izan behar da.

☎ 669 339 529

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan.

☎ 632 175 172

Familia batek bi logelako etxea hartuko louke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu.

☎ 637 207 806

GARAJEAK.....**Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.

☎ 688 687 820

Garaje itxia alokagai Basarten.

☎ 943 531 131

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Ezenarron, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan.

☎ 636 275 639

Salmenta

Garaje itxia salgai Santa Klara kalean. 22 metro koadro dauzka.

☎ 943 742 895

OSPAKIZUNAK

1945. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria egingo dugu urriaren 3an Sigma jaietxean. Interesatuek 50 euro sartu beharko dituzte irailaren 30a baino lehen Euskadiko kutzako (Caja Laboral) kontu korrante honetan: ES80 3035 0007 25 0071131384. Elizkizunarekin hasiko dugu eguna, 13:00etan Santa klarako elizan. Bazkaria 14:30ean izango da, eta bazkalaurretik taldeko argazkia aterako dugu. Oharra: Diru-sarrera egiteko orduan eraman kontu zenbakia.

1975. urtean jaiotakoekin bazkaria egingo dugu urriaren 17an Belaustegin. Joan nahi dutenek 60 euro sartu beharko dituzte urriaren 13a baino lehen Euskadiko kutzako (Caja Laboral) kontu korrante zenbaki honetan: ES89 3035 0007 27 0070031823. Egunean bertan autobusa izango da 14:30ean Txankakua zubian Belaustegira joateko.

BESTELAKOAK.....

Lokal bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren biltegi modura erabiltzeko. Hilean 100 euro inguru ordaintzeko prest.

☎ 629 425 632



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean sustatzaileak atek jarri zituen atikoetako hainbat duplexetan terrazatik komunitatearenak diren eremuetara joateko. Horren arrazoia zen etxe-aldaketarik egin behar izanez gero, ate hori erabili ahal izatea altzariak lekualdatzeko. Ate horiek enpresa sustatzaileak egin bazituen ere etxebizitzak jabeei ematerakoan datu horiek ez dira ageri Obra Berriaren Deklarazioan. Ondoren, hainbat etxe-jabek, beste atiko batzuetan horrelako atek jarri dituzte asmo berarekin eta horrek egonezina sortu die beste bizilagun batzuei. Etxe-jabe horiek baimena eskatu behar lukete aurrez etxe-jabeen elkartean?

Hainbat elementu Banaketa Horizontaleko Eskrituran edo eraikinaren deskribapenean ez agertzeak ez du zehazten hauek ez daudenik. Izan ere, deskribapen hori adibidea besterik ez da, ez numerus claususekoa. Beraz, Obra Berriaren Deklarazioan eta Banaketa Horizontalean ez agertzeak ez du esan nahi legez kanpokoa denik, sustatzailea eraikin guztiaren jabe zenean eraiki baitziren. Hori dela-eta, ezingo da eskatu atek kentzea sustatzaileak jarri zituen etxeetatik, bai, ordea, etxe-jabeek gero jarritako etxeetatik.

AHOLKUA: Era horretako zulo berri bat eginez gero, bide-zor berri bat ireki behar da eta horretarako ezinbestekoa da etxe-jabe guztien ahobatezko onarpena.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Maialen** mari-matraka! Astelehenean ederki ospatuko dugu zure seigarren urtebetetzea. Muxuak, etxekoan partez.



Zorionak, **Manex**, domekan 8 urte haundi beteko dituzulako, eta zure amari ere bai, gaur bere urtebetetzia dalako.



Zorionak, **Ainere!** Ondo pasa zure bigarren urtebetetze egunean. Patxo handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Darwin Xabier**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko, lruneren, eta gurasoen partez.



Zorionak Bilboko elgoibartarrari gaur urtetxo bat bete duelako. Muxu bat, aitaxo, amatxo eta familiakoan partez.



Zorionak, **Joane**, gaur zure urtebetetze eguna delako eta gainera ostirala! Ondo pasatzeko aukera paregabea daukagu!



Zorionak, **Uxue**, 7 urte bete dituzulako. Gurasoen partez, eta bereziki Danelen partez.



Zorionak, **Nora**, 4 urte bete dituzulako. Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Elene**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren partez eta bereziki Mariaren partez.



Zorionak, **Paula**, atzo 9 urte bete zenituelako. Patxo handi-handi bat denon partez.



Larunbatean, hilaren 26an, 4 urte beteko dituzu, **Markel**. Zorionak gurasoen eta arreba Juneren partez.



Zorionak, **Oinatz**, 27an 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat denon partez, batez ere arreba lhintzaren partez.




Zorionak, **Haizea eta Oihane**, bihar 9 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana aita, ama, osaba-izeben, lehengusuen eta amama eta aittitaren partez.



Zorionak, **bikote**, 9 urte bete direlako ezkondu zinetenetik. Ondo pasa!



Zorionak, Unai eta Idoiri eta ongi-etorririk goxoena **Ion eta Markeli** etxekoan partez.



Azkenian iritsi da hainbeste desio gendun eguna! **Zuek disfrutatu eguna!** Guk egingo degu eta! Zorionak, kua-drillakuen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua daukagu.
Denak ordue hartzeko.

★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA
MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

CORDON
VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta berrito estaldura
Zaluzko ezarria
Lakadura: eguz, aluminio, PVC,
Pirra eta orokoa

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glaspe kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

grupo
NIALMM

25 BARIXAKUA

22:00 Zine foruma, 'Agua' filma. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxean. Antolatzailea: Haizea emakume taldea. 21:30ean kafea.

22:00 Basaur taldearen kontzertua, Txarriduna jatetxean.

26 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Txosna. Debabarrena areto futbolero kirol taldekoek Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin prestatutako pintxoak.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plazatik irtengo dira.

12:00-14:00 Tailerra. Artilea.

Eguerditik arratsaldera: Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

9:00-14:00: Aire libreko margo lehiaketa Mendaron. Lehiaketako lanen erakusketa Lagun Betikoak taberna ondoko lokalean. Astelehenetik barixakura: 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

28 ASTELEHENA

17:00 Historia ikastaroa. Maalatik Sallobenteko ermitarainoko bidea, Pello Arrietarekin. Antolatzailea: Haizea. Maalako parkean hasita.

29 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra. 'Leonor de Aquitania', Jean Florin. Consuelo Carrere. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

1 EGUENA

15:00-17:00/18:00-20:00

Altzariak zaharberritzeko eta birziklartzeko ikastaroa. Martitzen eta eguene-tan. Izena emateko: 615 764 337 (Nieves). Antolatzailea: Eskuz.

2 BARIXAKUA

Plazako dantzen ikastaroa gazte eta helduentzako. Izenematea: urriaren 2a baino lehen Musika Eskolako idazkaritzan (40 euro). Ikastaroa urriaren 5etik eta abenduaren 21era. Ordutegiak: astelehen eta eguaztenetan 21:00etik 22:00era (hasiberriak); 20:00etatik 21:00etara edo 21:00etatik 22:00etara aukeran (lehen noizbait ikastaroa egin dutenak). Irakasleak: Haritz EDTko partaideak. Helburua: plazako dantzak ikastea, erromerietan dantzatu ahal izateko.

AIASTIAKO SAN MIGEL JAIK

25, BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera.

21:30 Gazte afaria.

23:30 Haritz EDTren ekitaldia Borja Uzuriagaren omenez.

Ondoren, Disko festa.

26, ZAPATUA

13:00 Umeentzako jolasak.

Jarraian, umeentzako bazkaria.

Bazkalostean, umeentzako parkea.

17:00 Artzain txakur txapelketa.

21:00 Bertso afaria. Amets Arzallus eta Andoni Egaña.

01:00 Bolo txapelketa.

Sariak:

1. 100 euro eta txapela.

2. 70 euro.

3. 50 euro.

4. 25 euro.

5. Sorpresa.

Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

27, DOMEKA

11:00 Meza.

Jarraian, Baltzola anaiak trikitilariak.

12:00 Aiastiako VIII. igoera korrika.

14:30 Bazkaria.

17:00 Idi-demak

Sariak:

1.saria: 900 €, garaikurra eta mantak.

2.saria: 800 € eta garaikurra.

3.saria: 700 € eta garaikurra.

Ondoren, Baltzola anaiak trikitilariak.

28, ASTELEHENA

11:30 Meza

Jarraian, 'Ziarda' eta 'Mañukorta' bertsolarien saioa.

Ondoren, esku-pilota finala.

14:30 Bazkaria.

Bazkalostean, erromeria Elustondo anai-arrebak trikitilariekin.

21:00 Afaria.

Jarraian, erromeria Elustondo anai-arrebak trikitilariekin.

ERROSARIO KALEKO JAIK

2, BARIXAKUA

13:00 Lore eskaintza amabirjinaren aurrean eta txupinazoa.

17:00 Kiribil, Kalebarren plazan.

18:00-19:00

Ludoteka

18:30 Igelaren jokoa, txaranga eta buruhandiak.

21:00 Afaria, Gabi jatetxean

Zinea (Herriko Antzokian)

'Mandarinas'

25 Barixakua, 21:30



'El Padre'

26 Zapatua,

19:00 eta 22:15

27 Domeka, 19:00

28 Astelehena, 21:30



Botika ordutegiak

09:00 - 22:00

25 Barixakua IBAÑEZ

26 Zapatua BARRENETXEA

27 Domeka BARRENETXEA

28 Astelehena ETXEBERRIA

29 Martitzena FERNANDEZ

30 Eguaztena YUDEGO

1 Eguena ORUESAGASTI

2 Barixakua BARRENETXEA

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera

GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18

943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udaltzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekua.....	943 743 228
Enplegua-Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuena biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalaria anonimoak	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547
Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Hurtzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800



Eugenia Heriz Unzueta

2015eko irailaren 16an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





1976

Perretxiko bila basoan ibiltzeko sasoi betean gaude, udazkenean sartu berri gara-eta. Argazkikoak Karakate Mikologia Elkarte-koak izanik, perretxikoak batutakoak, eta jakina, makina bat jandakoak, izango dira hango bazkideak. Batzuk orain ere miatuko dituzte noiz edo noiz mendi bazterrek perretxiko bila. 1976an ateratako argazki hau Bittori Guenaga ekarritakoa da, eta elkartearen kanpoko aldean agertzen dira Karakateko kide batzuk eta haien lagunak. Bazkaldu aurretik edo ondoren, tripa beteta edo betetzeko daude argazkian, baina jateko eta jai giro faltarik behintzat ez zaie sumatzen. Soinua eta panderoa, lapikoa eta ogiak esku artean baitauzkate. Aurten ere horietako batzuk seguru egingo dituzte jatordu bapoak Karakate elkartearen eta perretxikoren ere ezetz falta mahai gainean.

Goiko lerroan, ezkerretik hasita: Angel M. Ansola, Ignazio Mugertza, Jose I. Korta, Iñaki Beristain (†), Jose Otaegi, Gregorio De las Heras, Jesus Arrieta (Tossi italiarra), Jose M. Aizpurua, Luis Urbieta, Mario Iranzo (†) Karmelo Loiola, Juan Etxeberria eta Shanti (soinujolea). **Erdian:** Eduardo Martin (†), Antonio Aizpiri, J. Pablo Iglesias, Gerardo Garate (†), Esteban Gonzalez, Mikel Osoro, Jose A. Olasolo eta Jesus M. Zabala. **Behean:** Luis M. Albeniz (†), Valentin Txurruka (†), Kandido (autobus gidaria), Juan Lizarralde (†), Rafael Urrusolo, Sabin Txurruka, Julian Iriondo, Roberto Aristi, Fco. Jabier Bereziartua.

TXINDUAK ITUARI



SAGAROTEGIRA FAMILIA IRTEERA (ITZIAR)

URRIAK 3, ZAPATUA

Sagardoa nola egiten duten ikusiko dugu, eta sagardotegian bazkalduko dugu.



NAGUSIEK 15€ (BAZKIDEEK 13€)

UMEEK 10€ (BAZKIDEEK 9€)

Irailaren 30era arte eman ahal izango da izena Elgoibarko Izarraren bulegoan edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean. 943 741 626 (Mikel)



Beinke bertso eskola 5 urtetik gorakoentzat

Bertso eskolan apuntatzeko
interesik baduzue, jarri gurekin
harremanetan.

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

943 741 626 (Naiara)



Errimak

Poto

Doinua

Bukaera

Bat-batekoa

Neurria

Bertsoa

Idatzia



ATXUTXIAMAIKA



ELGOIBAR
UDALA

ELGOIBAR
NO BIZI



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKAL JAURERITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, IKERKETA, POLITIKA
ETIKETA, KULTURAREN
ERAKURTZE ERAGILEA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA DE LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Macrosistema Político Lingüístico